

JAURLARITZAREN KONTSEILUAK 2008. URTERAKO LAN-EGUTEGIA ONARTU DU

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburu Joseba Azkarragak proposatuta, Jaurlearitzaren Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko jaiegunen egutegi ofiziala onartu da gaur **2008. urterako**.

Hurrengo urtean, lan-ondorioetarako, **urteko igande guztiez gain, ondorengo zortzi egun hauek jaiegunak izango dira:**

- **Urtarrilaren 1a**
- **Martxoaren 21a**
- **Maiatzaren 1a**
- **Abuztuaren 15a**
- **Azaroaren 1a**
- **Abenduaren 6a**
- **Abenduaren 8a**
- **Abenduaren 25a**

Euskal Autonomia Erkidegoan hurrengo lauak ere jaiegunak izango dira:

- **Martxoaren 19a, San Jose**
- **Martxoaren 20a, Ostegun Santua**
- **Martxoaren 24a, Pazko Astelehena**
- **Uztailaren 25a, Santiago eguna**

Horrez gain, lan ondorioetarako, 2008. urtean, **tokian tokiko jaietako bi egun ere jaiegun izango dira**, hau da, ordaindu egingo dira eta ez dira errekuaratu beharko. **Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko lurralde-ordezkariek zehaztuko dituzte** egun horiek, udaletako osoko bilkuren proposamenez. **Lurralde historikoko gainerako udalerriekin batera edo aparte hartu ahalko dira.**

Dekretua argitaratzen den egunetik hasi eta hilabeteko epean egin behar dute proposamena udalek, eta beren lurralde ordezkaritzetara bidali.